

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5895

121/2019 EBAZPENA, abenduaren 17koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita honako erabaki hau argitaratzea: erabaki honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen 2019rako Enplegu Publikoaren Eskaintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren Enplegu Publikoaren bigarren Eskaintza onartzen dituen, eta 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan sartzen duena Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agenteen kategorian sartzeko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lanpostu-kopurua.

Gobernu Kontseiluak, 2019ko abenduaren 17an eginiko bilkuran, erabaki hau onartu du: erabaki honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen 2019rako enplegu publikoaren eskaintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu publikoaren bigarren eskaintza onartzen dituen, eta 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan sartzen duena Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agenteen kategorian sartzeko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lanpostu-kopurua. Erabaki horri dagokion publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea erabaki honen testua: erabaki honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen 2019rako enplegu publikoaren eskaintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu publikoaren bigarren eskaintza onartzen dituen, eta 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan sartzen duena Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agenteen kategorian sartzeko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lanpostu-kopurua. Erabaki horren testua honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 17a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA
LEGE BILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN
ABENDUAREN 17KO 121/2019 EBAZPENARENA

ERABAKIA, GOBERNU KONTSEILUARENA, 2019ko abenduaren 17koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen 2019rako enplegu publikoaren eskaintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu publikoaren bigarren eskaintza onartzen dituen, eta 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan sartzen duena Ertzaintzaren oinarritzko eskalako agenteen kategorian sartzeko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lanpostu-kopurua.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (lege hori aldatzen duen azaroaren 7ko 16/1997 Legearen idazkera kontuan hartuta), «Administrazio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira».

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 70.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen du legegintzako errege-dekretu horrek): «Giza baliabideen beharrianak daudenean, eta, horretarako aurrekontu diru-izendapena egonda, langile berriak sartzeari beharrezko denean, enplegu publikoaren eskaintza egin behar da, edo langile-beharrianak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili behar da; horretarako, beharrezkoa izango da sortutako plaza horiek betetzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egitea».

Arau horietan ezarritakoa betetzeko, Gobernu Kontseiluaren erabaki honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu publikoaren bigarren eskaintza onartzen da; aurrekontu-zuzkidura duten plaza hutsak sartu dira eskaintza horretan, hain zuzen ere, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokirako geroago betetzeko utzi ezin direnak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen eskaintzan 1.043 plaza sartu dira eta plazen artean sartzen dira txanda irekian eta barne-sustapeneko txandan bete behar direnak.

Bi txandetan eskaintako plaza guztietatik, plaza hutsen % 7 gordeko da desgaitasuna duten pertsonentzat (halakotzat joko dira azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren – Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena– 4.2 artikuluan zehaztutakoak), betiere hautaketa-prozesuak gainditzen badituzte eta egiaztatzen badute desgaitasun bat dutela, lanpostuaren zereginetan aritzeko bateragarria dena. Hartara, pixkana-pixkana lortu nahi da administrazio publiko bakoitzean, guztira, % 2 izatea langile horiek. Desgaitasuna dutenentzat gordetako plazen banaketa, bai eta horien kopurua ere, hautaketa-prozesuen deialdietan zehaztuko da.

Hezkuntza Administrazioari dagokionez, enplegu publikoaren bigarren eskaintza bat onartu da 2019rako (Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa eta bestelako lan-kategoriak), Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2019ko otsailaren 22ko Aginduaren bidez onartutakoari (2019ko otsailaren 28ko EHAA, 42. zk.) gehituko zaiona. Beraz, 2019rako enplegu publikoaren eskaintzan, 2.499 plaza sartu dira.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70.1 artikuluan ezarritako epean gauzatuko da enplegu publikoaren eskaintza, bai eta horri dagozkion deialdiak ere.

Bestalde, Segurtasuneko sailburuak ezagutzera eman dio Gobernu Kontseiluari Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agenteen kategorian sartzeko deialdiaren proposamena (XXIX. Promozioa); guztira, 700 lanpostu izango dira. Era berean, gehituko zaizkio 200 plaza, Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agenteen kategorian sartzeko deialdia handitu dela eta (XXVIII. Promozioa), Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren 2019ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez.

Halaber, Osakidetzaren Administrazio Kontseiluak 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartuko dituen plazen berri eman dio Osasuneko sailburuak Gobernu Kontseiluari. Enplegu Publikoaren Eskaintza horretan, kategoria profesional desberdinetako 2.150 plaza sartu dira, guztiak ere txanda irekian.

Eusko Jaurlaritzaren enplegua egonkortzeko politikak betetzea dute helburu aurreko proposamen horiek, eta, hartara, 2019an, guztira, 6.592 lanpostu sartu dira enplegu publikoko plaza gisa 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.I) artikulua betez, erabaki hau hartu du Gobernu Kontseiluak:

ERABAKIA

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen 2019rako enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Erabaki honen I. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2019rako enplegu publikoaren bigarren eskaintza onartzea. Erabaki honen II. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

3. artikulua.– Dagozkion deialdietan zehaztuko dira eskainitako plazak lortzeko prozedurak eta baldintzak, bai eta desgaitasuna dutenentzat gordetako plazen banaketa ere.

4. artikulua.– 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan sartzeko Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agenteen kategorian sartzeko plazak (XXIX. Promozioa eta XXVIII. Promozioaren handitzea), III. eranskinean adierazten direnak.

5. artikulua.– 2017-2020 Enplegurako Plan Estrategikoan sartzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren enplegu publikoaren eskaintzako plazak (estatutupeko langile finkoak izateko), IV. eranskinean adierazten direnak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila xedatzea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA ORGANISMO AUTONOMOETAKO PLAZA-KOPURUA

A) Funtzionarioak

Txanda irekia

Goi-mailako Teknikarien Kidegoa. Zuzenbideko lizentzia aukera	206
Goi-mailako Teknikarien Kidegoa. Medikuntzako lizentzia aukera	50
Goi-mailako Teknikarien Kidegoa. Arkitekturako lizentzia aukera	33
Goi-mailako Teknikarien Kidegoa. Albaitaritzako lizentzia aukera	20
Goi-mailako Teknikarien Kidegoa. Osasun Publikoaren Eskala	52
Goi-mailako Teknikarien Kidegoa. Epidemiologia Eskala	20
Goi-mailako Teknikarien Kidegoa. Laborategia Eskala	10
Goi-mailako Teknikarien Kidegoa. Informazioaren Sistemen eta Teknologien Eskala	35
Administrazio-kudeaketako Kidegoa	50
Administrarien Kidegoa	90
Administrari Laguntzaileen Kidegoa	300
Mendekoen Kidegoa	50

Barne-sustapena

Administrazio-kudeaketako Kidegoa	20
Administrarien Kidegoa	40
Administrari Laguntzaileen Kidegoa	50

B) Lan-kontratupekoak

Psikologoak	17
-------------	----

II. ERANSKINA

HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOKO PLAZA-KOPURUA

A) Funtzionarioak

Bigarren mailako Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa	182
Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa	217

B) Lan-kontratupekoak

Hezkuntza-laguntzako espezialistak	241
Fisioterapeutak	9
Terapeuta okupazionala	5
Zeinu-hizkuntzako interpretea	4
Transkribatzailea eta materialaren egokitzailea	1

III. ERANSKINA

ERTZAINZAKO PLAZA-KOPURUA

Oinarrizko Eskalako Agenteen Kategoria (XXIX. Promozioa)	700
Oinarrizko Eskalako Agenteen Kategoria (XXVIII. Promozioaren handitzea)	200

IV. ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO PLAZA-KOPURUA

Estatutupeko langile finkoak – Txanda irekia	2.150
--	-------